



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Calixto Bieitoren ikuspegi eszenikoak, Diego Martín-Etxebarriaren batutak eta lehen mailako lau abeslarik Gabonetako Oratorioaren musika zoragarria goraipatuko dute

- Nazioartean prestigio handia duten lau bakarlarik, **Vanessa Goikoetxea, Nerea Berraondo, Toby Spence eta Jonathan McGovern-ek, Johann Sebastian Bachen musika erlijiosoaren altxor handienetako bat interpretatuko dute.**
- **Bilboko Koral Elkartean Euskeria Abesbatzak, Urko Sangronizen zuzendaritzapean, obra unibertsal hau interpretatzeko erronkari eusten dio, Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) ere parte hartzen duen ikuskizunean.**

**Bilbo, 2021eko abenduaren 21a.** – Bachen musikaz gozatzea da Gabonak prestatzeko modurik onena. Horixe pentsatu du Arriaga Antzokiak eta, une honetan, ekoizpen propioko kontzertu berezi horren azken prestaketa lanetan dihardu, emanaldia bihar izango baita, asteazkenean, abenduaren 22an, arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

Arriaga Antzokiaren ekoizpenean bat egiten dute, batetik, **Calixto Bieitoren** ikuspegi eszeniko intuitibo eta indartsuak eta, bestetik, **Diego Martín-Etxebarria** gure batutarik nazioartekoenaren musika-zuzendaritzak, **Johann Sebastian Bachen Gabonetako Oratorioa** eszenaratzeko —zalantzarik gabe, konpositore aleman paregabearen musika erlijiosoaren altxor handienetako bat da—.

Nazioarteko jarduera duten lau abeslari bakarlarik, **Vanessa Goikoetxea, Nerea Berraondo, Toby Spence eta Jonathan McGovern-ek,** konpositore alemanaren obrarik ezagunenetako bat interpretatuko dute. Laukote bakarlariarekin batera, **Bilboko Koral Elkarteko Euskeria Koruak** abestuko du, Urko Sangronizek zuzenduta. Zalantzarik ez, Bachen lan handi hau abesteko aukera paregabea da tankera horretako gazte koru batentzat. Gainera, emanaldi honetarako berariaz hautatutako ahots batzuk ere gehituko dituzte, Gaudeamus Koralekoak eta Nurat Gazte Abesbatzakoak. Musikari dagokionez, interpretazioa **Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS)** pairatuko du, ohi duen sendotasunez eta kalitatez.

### Hiru kantata

Izaera baikorra eta alaia nabaria da Gabonetako Oratorioa osatzen duten kantata guztietan. Amaieran, Jesusek gizateria salbatzeko borrokan izandako garaipena ospatzen da. Jatorrizko obra osoak sei kantata ditu, eta horien arteko lotura Kristoren

jaiotzaren kontakizuna da. Kontzertu hunkigarri honetan, Bach-ek 1734-1735ean Leipzigekeko Santo Tomas elizako liturgia-zerbitzuetarako idatzi zituen Gabonetako Oratorio ospetsuko (Weihnachtsoratorium BWV 248) kantatetako hiru interpretatuko dira.

**ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 14 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# ***Gabonetako Oratorioa***

***Weihnachtsoratorium BWV 248***

***1., 2. eta 3. kantatak.***

Zuzendaritza musikala: **Diego Martín-Etxebarria**

Zuzendaritza eszenikoa: **Calixto Bieito**

Bakarlariak

Sopranoa: **Vanessa Goikoetxea**

Altua: **Nerea Berraondo.**

Tenor eta ebanjelista: **Toby Spence.**

Baritonoa: **Jonathan McGovern.**

Korua:

**Bilboko Koral Elkartearen Euskeria Korua**

**(+ Gaudeamus Korala)**

**(+Nurat Gazte Abesbatza)**

Abesbatzen zuzendaritza: **Urko Sangroniz**

Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS).**

Produkzioa: **Arriaga Antzokia**

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)

[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)